

# # Ikasle Pisuak Zer?

2019-2020 ikasturte bukaeran, COVID-19aren krisiaren ondorioz, egoera zaugarrian aurkitzen ziren maizterrentzako alokairua ordaintzeko diru-laguntzak ezarri zituen administrazio publikoak. Baina ikasle pisuak arautu gabe geratu ziren eta, horren ondorioz, [#IkaslePisuakZer](#) kanpaina abiatu zen EGKtik. Bertan ikasleen esperientzia, bizipen eta eskaerak jaso ziren testigantzen bidez. Hain zuzen, konfinamendu garaian ikasle pisuen egoera arautzea eta errealitate horri babes neurri berezituak eskaintzea aldarrikatzen zuten jasotako ideietan ikasleek, besteak beste.

Oraingo honetan ere, ikasturte hasieran, ikasleek zalantza askoren artean pisuen problematika parez pare dute eta errealitatea errepikatzen da, ziurgabetasuna areagotuz. Berriro ere, ikasleek oraindik ez dakite ziurtasunez eskolak presentzialki edo online izango diren eta, ondorioz, zaila da etxebizitza alokatzearen erabakia hartzea. Gainera, honek eragina du beraien bizitza proiektu osoan: egoera akademiko guztiaren jakitun ez direla eta baldintzatzen dituzten faktore guztiak kontuan ezin hartuta erabaki behar dute non bizi.

Gazte ikaslearentzat erabakiak ekonomikoki eta sozialki du eragina bere errealitatean. Hauek izan dira, besteak beste, gai honi lotuta jaso ditugun testigantza nagusiak:

*"Irail hasiera da, eta oraindik ez dakigu ikasturtea benetan noiz hasiko den ez eta zein modutan: online edo presentziala izango den. Klaseak hasita jakingo dugu zelan doan gai hau aurrerantzean forma hartzen".*

*"Astean 2-3 aldiz klasea izanda, beste hiriburu batera goazen euskaldunok ez dakigu pisua hartu beharko genukeen edo ez. Unibertsitateko egoera ez dago argi".*

*"Pisua hartu dugu, baina ez dakigu ea mereziko digun gastu handia delako aukera egonez gero klaseak etxetik jarraitu ahal izateko. Alokatzeko ari gara, jakin gabe oraindik oso argi ikasturtea nolakoa izango den. Bakoitzaren apustua izan da alokatu edo ez".*

*"Zalantza asko egon dira ikasle on artean, pisua hartu edo ez erabakitzeko. Bakoitzak erabaki du zer egin. Batzuek ez dute hartu, besteok bai. Nik gela partekatzea erabaki behar izan nuen, azkenean aste bat bertan egongo naizelako eta bestea ez. Ekonomikoki ez da erabaki erraza pertsona gazte batentzat, gauza askok baldintzatzen baikaituzte, lanerako aukerak esaterako".*

*"Kontratuetan klausulak jartzeko aukera begiratzen gabiltza ikasle asko: berriro konfinatzen bagaituzte, ikasle pisuarekin irtenbidea izateko. Egoera honek ardura handia eragiten digu".*

*"Ezjakintasun guzti honen erdian, masterra hurrengo urterako uztea erabaki dut. Nire ikasketa planak atzeratzea erabaki dut beraz. Ezjakintasun egoeran ez da erraza mota honetako aurrerapausoak eta erabakiak hartzea".*



Euskadiko  
Gazteriaren  
Kontseilua

Consejo de  
la Juventud  
de Euskadi

# #IkaslePisuakZer?

"Egoitzetarako ohiko ikasle askok ez dute izena emango eta ikasle pisu asko hutsik gelditu dira dagoeneko".

Testigantzetan ikusi ahal izan den bezala, desegonkortasuna nagusi da. Erabakiak hartzeko behararen eta informazio ezaren artean aurkitzen dira milaka ikasle gazte. Zentzu horretan, hezkuntza eta etxebizitza arloak uztartzen dituen ikasleen kezka desberdinekin bat eginez, honako puntu edo mementuko behar nagusi hauek nabarmendu nahiko genituzke EGKtik:

- **Ikasleen egoera hau aintzat hartzea eta neurrietan uneko egoera presente izatea.**
- **Partaidetza espazioak bultzatzea, batez ere mota honetako erabakiak hartzeko (nolabait ikasle baten eguneroko bizitza baldintzatzen dutenak).**
- **Egoeraren berri beharrezko denbora tarteaz ematea. Ezjakintasun eta ezegonkortasun egoerak ahalik eta lasterren ekiditea. Jakinarazpenak lehen mementutik ikasleon esku egotea, hau da, informazio gardena eta organizazioari dagokiona, ikasle eskura jartzea.**
- **Laguntza ekonomikoetan, neurriak gehitzea.** Beraien ohiko etxebizitzan bizitzen geldituko direnen kasuan (garraiorako esaterako) edo joan etorrian ibiliko direnen kasuan.

Honekin guztiarekin, ikasleak ardura bereziz, ezjakintasunez eta beraien bizitzekiko ezegonkortasun handiz begiratzen diote etorkizun hurbilari eta beraz egoera berri hau egokitu eta arautu dadin eskatu nahi dugu EGKtik ere.



Euskadiko  
Gazteriaren  
Kontseilua  
—  
Consejo de  
la Juventud  
de Euskadi